



Z.B.E.

Zaballako Bertso Eskola



Mari



GURE HERRI TXIKI HAU DA

I.- EMAKUME AHALDUNDUAK
MARI JAINKOSAN ANTZERA
SORGINEK JAKINDURIA
ZUTEN BARNEAN SOBERA
AMA LURRA ERRESPEZUZ
BEGIRATZEKO JOERA
EUSKARAZ BURU TA BIHOTZ
HORI PEKATU OTE DA?
ASKE BIZI IZATEA
ZEN GUZTI HAIEN AUKERA
LURRAREKIN BAT EGINEZ
TA ELKAR ZAINDUZ GAINERA
MAITASUNEAN EMANEZ
JASOAREN ARABERA
EUREN UTOPIAK BIZIZ
NATURAREKIN BATERA

II.- GRAXIANA BARRENETXEA
ATXILOTUA LEHENIK
AGERREKO ARIXANE
SUTAN ERREA BIZIRIK
LANCREK ZITUEN EHIZATU
TA TORTURATU GOGOTIK
BERDINA JAUN GURUTZEDUN
GIXON ASKOREN ALDETIK
EMAKUME HAI EK ZIRENA
BIHOTZ OSOAN DARABILT
HAIEN BARNEKO INDARRA
BIZIRIK DELA BADAKIT
ERRETAKO HAIEN ALABAK
ZUTUNIK GAUDE ORAINDIK
SASI GUZTIEN GAINETIK
HODEI GUZTIEN AZPITIK

III.-MILA BEDERATZIREHUN
HOGEITA HAMASEIKO URTIA
HISTORIAN KOLPE LATZ BAT
ALDATUZ GURE ZORIA
ASKATASUNA HELBURU
SENTITUZ BETI HERRIA
BESTELAKO GIZARTE BAT
SORTZEKO ZUTEN PREMIA
HERRI DESBERDINETAKO
ASKATASUN EGARRIA
BENETAKO BALOREAK
BORROKAREN IRRINTZIA
BERAIEN ONDORENGOOK
DUGU AMETS EGOKIA
EUREN IZENAK AHAZTU
EZ DAITEZEN UTOPIA

IV. ATXILO, TORTURATUAK
FUSILATUAK HAINBESTE
FRANCISCO FRANCO BAHAMONDE
DIKTADOREAREN MENPE
SATURRAN GARAITUEN
INPERNU IZAN LITEKE
EMAKUMEEN KASUAN
HORI BIDERKA DAITEKE
SEME-ALABAK LAPURTU
ERAHIL BESTEAK BESTE
EMAKUMEON GORPUTZA
ERASOTZEA ZEIN MERKE
ZENBAT ETA ZENBAT AMETS
DEN ORAINDIK BETETZEKE
ORDUKO TIROEN HOTSAK
ORAINDIK ENTZUN DAITEZKE

V.- BAKARTXO, INA, OIHANE,
BELEN, GURUTZE, OLAIA
ASKATASUNA HELBURU
HERRIA ASKATZEKO NAHIA
JO PUNTUAN ZAPALKUNTZA
INJUSTIZIA, ETSAIA
MAITE ZUTEN GURE HIZKUNTZA
OHITURAK ETA PAISAIA
JENDARTE JUSTUAGO BAT
LANTZEKO ESKUTAN LAIA
NAHIZ ETA HAIN GUTXI IZAN
DENA EMATEKO GARAIA
ARERIOAK ULERTU
EZIN DUEN LENGOAIA
UTOPIARUNTZ JOATEKO
EMAN DIGUTE KURIAIA

VI.- KOLPEAK, ELEKTRODOAK
BAINERAN ERDI ITOA
BORTXAKETAK ETA GERO
ZIEGA HOTZERA SALTOA
FLEURY, MURTZIA, KORDOBA,
TOPAS EDO SOTOKOA
BIDAI LUZEAK, BIXITAK
EZ DU IRAUTEN NAHIKOA
ESPETXEAN SARTU DUTE
GUREKIN BAT ETXEKOA
BAINA SAREA EZ DA ETEN
DA ZABAL TA GALAKOA
SEGITUKO DUGU SORTZEN
MUNDU BAT UTOPIKOA
GURE HAUREN IRRIBARREEN
DA HAIEN AMETS GAIZTOA.



Aska hitzan hire beldurak



DESAGERTUA

I. ASKA HITZAN HIRE BELDURAK
HAUTA ERRIMA DOINUAK
"UTZI BURUA LIBRE" ESAN DU
BERTSOLARITZA MAISUAK
"LIBRE!" ENTZUN DU BURUAK
ZAPART EGIN DIT BARRUAK
JADA ESKUAK DARDARKA DITUT
ASTINDU NAU AHOLKUAK

II. GORPUTZA INDARREZ DUT IGARRI
IDEIAK KOLPEKA ARI
BULTZA TA TIRA ARI DIRA ETA
BEHAR DUT ORDENA JARRI
HELDU DIOT ERRIMARI
TA DOINUA LEUNGARRI
BORBORKA DUDAN EGONEZINA
GERTA BEDI ALTXAGARRI


III. SENDATU EZIN DIREN ZAURIAK
ERAGIN DIZKIT KARTZELAK
BAHITU IGOR ZENIZKIDATEN
ORBAINZKEKO UKENDUAK
MOZTUTA DITUT HEGALAK
HERBAL OIN, BURU ESKUAK
LUZE TA LATZA IZAN DEN ARREN
BIZIRIK DIRAU OLDARRAK

IV. LAPURTU DIZKIT BIZI URTEAK
EMAN GURAKO FERAKAK,
SEMEAREN HEZKETA ARDURAK
ALABA BETEBEHARRAK,
HERRITARREN GORABEHERAK,
KIDEEEN POZ TA DOLUAK...
HIZKUNTZA BERA ERAUZTEN EGIN
DITUZTE EGINAHALAK

V. AZKEN LUBAKIRA BULTZATUTA
NAIZENA ERE UKATUTA
GIRO BORTITZEAN NAHI NINDUTEN
BETIKO KATEATUTA
HERRI SENAZ INDARTUTA
FENIX BERRIA PIZTU DA
BIZI-GOGOEA EZIN DA ETEN
ZIGOR LEGEZ KOLPATUTA

VI. BOZGORAILUAK OZEN DITUZTE
GALDU DUGULA DIOTE
KONPONBIDEA ADOSTU ORDEZ
GERRAZALE HANDIUSTE...
BAINA ZER ISILTZEN DUTE?
ARAZOEK HOR DIRAUTE
IZAN KARTZELAN, IZAN KALEAN
LANA DUGU ESKU-BETE





Las

ter

ri

bles

de N.

10

Esker oneko agurrak

🎵 IPARRAGIRRE ABILA DELA

LEHENGO TXIKITIK HASI ZEN DENA
HATORTXUREN AKORDEAN
ELKARTASUNA KEINU HARTUTA
BERE HANDITASUNEAN
LANA BA DU KRISTONA
JAI GIROA ERE ONA
AZKENA OMEN UZTAILEAN
BESTE BAT EGIN BEHARKO DUGU
DENOK JOAN GAITEZKENEAN

LASTARBIDEAN HASI ZINETEN
KORRIKA EGITEN GUREKIN
AZKENA ERE ETORRI DA TA
SEGITZEN DEZUTE BERDIN
HAMAR URTE HAUETAN
GUREKIN BAT BENETAN
TA AURTENGOAREKIN FIN
GURE EGONA ERE HAMAICA
BIDER LUZATU EZ DADIN.

LEHENGO ARROPA, ORAINGO TERNUA...
JOAN ZAIZKIGU URTEAK
BERTSO HAUEKIN ESKERTU NAHIAN
NIK ZUEN KEINU MAITEAK
HAMAICA OZTOPOKIN
GU BETI ELKARREKIN
EZ NAU HARRITZEN UZTEAK
ORAIN IREKI BEHAR DITUGU
KARTZELETAKO ATEAK

Online entzungai

<https://bertsoeskola.eus/baliabideak/451/>






Leihoa ireki eta

🎵 HABANERA

I. LEIHOA IREKI ETA
BEGIRATU DUT LUZERA
MURRUEN BESTE ALDEAN
ZABALTZEN ZAIDAN LURRERA
GAUZAK ALDATZEN JOAN DIRA
EZER EZ DUGU BERBERA
ZE ARRAROA MUNDUAK
ISLATZEN DUEN TANKERA
AUZUNE BERRIAK NONAHI
HAINBAT MINTZATZEKO ERA
AURRERA DARRAI GUZTIAK
BAINA ZEREN ARABERA
HAN HAIN SENTITZEN NAIZ ARROTZ
SORTU ZAIDALA GALDERA:
ORAINDIK ERE GERONI
KANPOTARRAK OTE GERA?

II. DENAK LIBRE ZARETELA
EZ OMEN DAGO DEBATE
KONTRAKOA ESATEA
ASKORENTZAT DISPARATE
BAINA KONTRAKORRONTEAN
JOATEA DUDANEZ MAITE
HORRA EGI BOROBILA
KONTUZ MIN EGIN DEZAKE!
HIPOTEKAREN HOZKADAK
EGITEN DIZUE KALTE
GAU TA EGUNEZ LANEAN
ATSEDEN GABE JOTAKE
DENA ESTRESA TA KEXA
ARIMAN A ZE DESGASTE
KARTZELAN EZ DUT SENTITZEN
ZUEK BEZAINBESTE KATE

III. SEGI BEHAR DUT BERTSOAN
EGIEN XENDA KRUDELA
KALEAN EZ BAITA DENA
FESTA GOXO TA PASTELA
MISERIA ERE HANTXE
SARRITAN TOPATZEN DELA
ASKO BIZI DELA GAIZKI
PRESO BALEGO BEZELA
BESTE BATZUK MURRU ARTEAN
NEGUAN EPEL DAUDELA
KONTRAESANEN SARETIK
EZIN NAIZ IRTEN HORRELA
ETA BERRIRO GALDERA
NIGANA DATOR ITZELA:
NON HASTEN DA ESPETXEA?
NON BUKATZEN DA KARTZELA?





Espetxetikan irtenda

🎵 HEZURBELTZAK

I. ESPETXETIKAN IRTENDA
DENA ZABALA, HANDIA
MUGIKORRA DUT ONDOAN
DEIAK, MEZUAK, JENDIA...
LEHENENGO BI EGUNAK
NIRETZAKO EROALDIA
TURISTEZ BETETA DAGO
BETI DA DENBORALDIA
HERNANIRA JOAN NAHIAN
ERREPIDEA GARBIA
ROTONDAK ETA ETXEAK
HORMIGOIAREN SARIA
HOGEI MINUTUKO TRAMO
NIRE LEHENENGO ALDIA
JEITSI NINTZEN GERATZEAN
ORAINDIK BIDE ERDIA

II. NIRE ITXURA KALEAN
MOLDATZEKO DUT BEHARRA
ILE URDINA ERABAT
“DEMODE” ETA ZATARRA
ALA IBILTZEA HEMEN
ESKALE ANTZA XAMARRA
GAZTEEK PASO EGITEN
AGUREENTZAT BALDARRA
ILE APAINDEGI BILA
GROSEN BADAGO ZAHARRA
ISMAIL DA HAREN JABE
ARRISKUTSU ARGELIARRA
AIZTURREKIN OSO TREBE
LABANAREKIN AZKARRA
BEREZIA DA TIPOA
DELAKO BEGI BAKARRA

III. OKINDEGIAN SARTU NAIZ
EGUN ON ESAN, NORMALA
BARKATU EZ DUT ULERTZEN
GAZTELERAZ BEREHALA
ARRAINDEGIRA OSTEAN
BERRIZ SAIATU AHALA
HORREK ERE BAI ERDARAZ
LODIEGIA AZALA
FRUTA EROSI BEHAR DUT
PREZIOA DA MORTALA
ATZERRITARRA DELAKO
ELKARRIZKETA MAKALA
KARNETA ATERATZEKO
TXAKURTEGIRA NOALA
EUSKARAZ ERANTZUTEN DIT
POLIZIA NAZIONALA





Legea dute botere

🎵 BANEZA ETA BANITU

LEGEA DUTE BOTERE
BOTERE TOTALA XEDE
XEDE HORIXE DA FEDE
TA FEDE BAKARRA LEGE
AGINDUTAKO LURRA AZKAR DA
AGINTARI HOIEN MENDE
NATURA ZAINZEN BAITUGU ORAIN
SUNTSITUAZ ALAFEDE!
TXIROAREN MIN TA DESGRAZIA
BETIKOENTZAT MESEDE
KAOS AURREAN ITSU, GOR, MUTU...
GABILTZA MERITUZ TREBE

ETENGABE SALTO ZIRKUZ
PANTAILEZ PANTAIL MUGITUZ
USTEZ BEHARRAK HORNITUZ
BEHATZ BATEKIN UKITUZ
GARUN, ESKU TA BEGIAK LAUSO
DITUGU MAKINAK PIZTUZ
PROGRESUAREN PARADISUAN
ZUHAITZAK EZIN KABITUZ
MENDEETAKO LOTURA ESTUK
ZIZTU BIZIAN SUNTSITUZ
GAINBEHERA ERO HONETAN POZIK
TREBE GABILTZA MERITUZ

MAITE AL DUGU BIZITZA?
GURE ESKU DAGO GILTZA
OREKA DUGU BALDINTZA
TA GUK BALANTZA BORTITZA
BATZUEK HARRO BERAIENTZAKO
HARTUAZ LURRA TA HITZA
JAUNGOIKO HORIEI ZE DANTZA SANTU
NI DEABRUA BANINTZA!
ASKOK AMESTEN DUGUN HORIXE
BORROKA TA OZEN MINTZA
MORE ETA BERDEZ JANTZITA ALDIZ
MERITUZ TREBE GABILTZA





Naizena izanez garena

 DOINU MIXA

I. AZALAK MEMORIA DU

JAIOTZEAN GENEETAN
IXA IXA BADITUZU
BI AUKERETAN BAKARRA
EGOKITU OMEN ZAIZU
ALAZNE, NAGORE, MAITE
IZENAK IZANA MAISU
ANAIK, AMONA, AHIZPA
AITA ONDO ZAINDU ITZAZU
IZAN ZAITEA TXINTXOA
GAUEZ EZ IBILI AIZU
MUTIL EZEZAGUNEKIN
EZ JOAN INORA, KASU!
BI IXAK JARRAIAN NOIZTIK
EGITEN DU ENBARAZU?
ZERGATIK ERAIKITZEN DA
HAINBESTE BELDUR TA IZU!

III. DENA ALDATZEN DA

MENOPAUSIA, KLIMATERIO,
ADINAK DAKAR LISTARRA
HORMONA DANTZA GALANTA
MALA OSTIA TA NEGARRA
UGALKORTASUN GALDUA
ERAUZI TA ISILDUA
EZIN IKUSIZKO GARA
EMAKUME EZEREZTUA

*DENA ALDATZEN DA
DENA ALDATZEN DA (BER)*

MATRAILAK GORRI GORRIAK
EDERTASUN UKATUA
AZALAK ERORI DIRA
ALUA DA SIKATUA
MINA GORPUTZ ETA ARIMAN
ABANIKOA ESKUAN
LO EGIN EZINIK ORDUAK
BETIEREKO NEGUAN
DENA ALDATZEN DA..

II. ITSASOARI BEGIRA

MAITASUN GABE EMAKUME BAT
DENEZ HUTSAREN HURRENA
NIRE PRINTZIPE URDINA ZARA
OSAGARRITZEN NAUENA
ZU GABE EZER EZ NAIZ IZANGO
EMANGO DIZUT ONENA
ZORIONTASUN IZAR ARTEAN
SENARRARENA AURRENA
AZKEN ARNASA EMAN NAHI NUKE
NAIZELA IZANEZ GARENA

IV. BUBO MAGNIPETASI

BIZI OSOA ZAINTZEN
BAZUN BALIOA
ZERGAK ORDAINDU EZ ETA
KRISTON PRESIOA
MISERI GORRIA DA
GURETZAT GEROA
ZAINZTA BEHAR DENEAN
HASTEN DA ARAZOA
MIXERI GORRIA DA
GURETZAT GEROA
BIZIRAUTEA OTE
DA ZAHARTZAROA

HIRU EGUN ZERAMAN
HILIK BERE ETXEAN
ESATARIAK ZION
GOIZEKO ALBISTEAN
MUNDUAK AHAZTUTA
ZEUKAN BAPATEAN
EMANKORRA IZATETIK
UTZI ZUENEAN
MUNDUAK AHAZTUTA
ZEUKAN BAPATEAN
DUINTASUNIK EZ DA
HORRELA HILTZEAN



Etxeo kontuak eta

🎵 MENDIAN GORA

ETXEKO KONTUAK ETA
HORRENBESTE KONPONKETA
NOLA IRITSI, ZERTAN LAGUNDU
ZIEGAN GORDETA?
AITONAREN ESKOPETA,
KOTXE BATEN EROSKETA...
BIKOTEAREN USAIN LEUN TA
UMEEI ERRIETA.

DENETAN LAGUNDU GURA
BISITAN DAUKAT OHITURA,
ZERTARAKO BERAIEN BIZITZA
HARTZEA ARDURA?
ARGINDARRAREN FAKTURA,
EROSI DEN ESKULTURA...
NIRE PRESENTZIA BETE NAHIAN
LORTZEKO LOTURA.

DENBORA AURRERA DOA
NEKEAN DAUKAT ZANGOIA
ILE URDINA, XIMUR ANITZA,
INOIZKO OZTOPOA...
SORTUTA INTENTZIOA
ZUEKIKO KONPROMISOA
BIDE BERETIK JARRAI DEZAGUN
AMESTEN GEROA!

ESPETXEAREN ZIOA
GURE ERRENDIZIOA
GIZARTE DENA BEZATZEA DA
BERE DESIOA.
ETA GURE MISIOA,
POZA TA ILUSIOA:
BARROTE DENAK HAUTSI DITZAKEN
BERTSO JARIOA





Martzianoak Zaballan

GURETZAT BERDIN DIRA / O BASERRITXO (TXANDAKATUTA)

GURETZAT BERDIN DIRA

ZERTARA ETORRI GERA
LUR HONETARAINO
GOIZEAN EGITEN DU
HORRENBESTE LAIN
ASKATASUN FALTA HAU...
NAU KOKOTERAINO
HOBETO GEUNDEN MARTEN
MAKO HONETAN BAINO

O BASERRITXO

LUR HARTU ETA BERTAKOEKIN
JASOTAKO OSTIKOA
HITZ ARRAROAK ENTZUTEN DIRA
HAU EZ DA EZ MARTEKOA
UMOREA BAI BADUTE BAINA
ULERTZEKO EZ DA NAHIKOA
MENDETAN BIZIRIK IRAUN DUEN
BAKARRENETARIKOA

GURETZAT BERDIN DIRA

HIZKUNTZA EZ DA GUZIK
ARRAROENA HEMEN
OTORDUETAN JATEN
DA SERIO NABARMEN
TXERRI OSOA IRENSTEN
DUTE HAUEK OMEN
TIRA GU JAN BAINO LEHEN
ETXERA GOAZEN

O BASERRITXO

JAUNGOIKOA TA LEGE ZAHARRA
BATZUENTZAT DEIADARRA
BESTE BATZUEN INTERESA DA
JAIA FESTA ETA PARRA
BAINA BADIRA BIAK UZTARTUZ
BORROKAN BATZUK INDARRAK
ARBASOEGANAKO LOTURA
DITUZTE OHITURA ZAHARRAK

GURETZAT BERDIN DIRA

KARTZELA GURETZAKO
EZ DA EZAGUNA
LO EGITEAN SOILIK
DAGO_ASKATASUNA
ZABALLAN AMAITZEN DA
GAUZIK ZENTZUDUNA
HAU AL DA URTE HAUETAN
ZUEN BIDE ILUNA?

O BASERRITXO

EUSKALDUNONTZAT GURE
HERRIAK
DU BERE IZENA MARTE
EUSKAL PRESOAK SENTITU DIRA
DENAK ETXETIK APARTE
ORAIN EUSKAL LURRETAN
EGONIK
NAHIZ ETA EZ EGON ASKE
LAGUN ARTEAN GOZATZEN DUTE
BERTSOLARITZAN JOTAKE



ARABABAKO

BERTSO

KUADRILLA

ATEO



Gure odisea



MUÑAGORRI

ZUEN ARTERA GATOZ
EGITERA KANTA
NAHIKO GENUKE UTZI
HEMEN GURE MARKA
NAHIZ AGIAN EZ EUKI
BERTSOLARI PLANTA
KARTZELAN BE BADUGU
KUADRILLA GALANTA

ASTERO ELKARTZEKO
GAUDE GU AUPAKA
EUSKARAZ GOZATZEKO
ARITUZ KANTAKA
LEKU ARROTZA BAITA
ESPETXEKO ATAKA
BERTSO-ESKOLA GURETZAT
DA GURE ITAKA

KALERAKO BIDEA
BENETAN LUZEA
KANTA HAU IZAN BEDI
ASKAPEN HAIZEA
BARRUKO TA KANPOKO
LOTURA LANTZEA
ZUEKIN AMAITZEKO
GURE ODISEA



Online entzungai

<https://bertsoeskola.eus/baliabideak/457/>



Motxila urdina

🎵 BERTSO ESKOLA

MAMU BELTZAK ETORRI DIRA
BERRIZ ZUTAZ GALDEZKA
BETIKO NORMA TA MUGEN
LOGIKA IRRAZIONALAZ
UKATU NAHI DIDATE
ZURE MUSU TA BESARKADAK
ZURE MOTXILA URDINA
MAITASUNEZ HUSTU
ETA HARRIZ BETETA

AMETS GAIZTOZ BETEA
NAHI ZAITUZTE
MALKOZ ALDATU IRRIA
ZURE MOTXILA URDINA
MAITASUNEZ HUSTU
ETA HARRIZ BETETA

MURRUEK EZ DUTE LORTUKO
GURE ARGIA ITZALTZEA
ELKARREKIN ERAIKIKO DITUGU
ASKATASUN AMETSAK

ELKARREKIN ERAIKIKO DITUGU
ASKATASUN BIDEAN AMETSAK
ELKARREKIN APURTUKO DITUGU
BANATURIK GAITUZTEN PARETAK
MURRUEK EZ DUTE LORTUKO
GURE ARGIA ITZALTZEA
ELKARREKIN ERAIKIKO DITUGU
ASKATASUN AMETSAK.

Online entzungai

<https://bertsoeskola.eus/baliabideak/450/>





Autoekoizpena

Zaballako Bertso Eskolak
2024an ekoitzia

Bertsoak entzungai

www.labur.eus/ZBEsortak2024